# Genero irakurketak erdigunean kokatzen irakurle klubetan: proposamen batzuk

Andrea Perales Fdez. de Gamboa & Gema Lasarte Leonet

ATENEO NAVARRO NAFAR ATENEOA

ueu udako euskal unibertsitatea

# Gaurko egitaraua

- Aurkezpena
- Moderatzaile/ Koordinatzaileen enpoderatze prozesua
- Liburuak aukeratzeko irizpideak
- Sorkuntza: Zer egin irakurle klub feminista batean?

**Zure burua aurkeztu:**

- Liburu bat aipatu beharko bazenu, zuretzat esanguratsua izan dena emakumeen inguruan edo generoaren inguruan, zein izango litzateke?
  Zergatik? Liburua aurkeztu.
- Pertsonaia bat aurkeztu dezakezu, zure Literatur ibilbidea markatu duena.
  Edo eszena bat…
- Nola irudikatzen duzu zure irakurle klub ideala?
  Eta hau aurrera eramateko, zer behar duzu formakuntza honengandik?

# Moderatzaileen / Koordinatzaileen enpoderatze prozesua

# IRAKURKETA DEMOKRATIKOA BULTZATU

## TALDEA OSO ONDO EZAGUTU

- Kide bakoitzari denbora eman.
- Txandak errespetatu.



## DINAMIKAREN IZAERA ISILUNEN BITARTEZ

- Koordinatzailea entzulea da
- Begiradak
- Besteei hitz egiten utzi
- Kideak proposatzen dituzten liburuak oso kontuan eduki.
- Kontuan hartu taldearen nahiak: adinak, gaiak

# IRAKURKETA DEMOKRATIKOA BULTZATU:
## GIRO ONA

- Talde izaera sortu:
  - Whatsapp/ Telegram  taldea: informazioa partekatu
    - Liburuak
    - Ekitaldiak
    - Formakuntzak
  - Elkarrekin hainbat ekitaldietara joatea
  - Elkarrekin erraminta digitalak sortu
  - Liburuak oparitu
  - Merendolak, poteoa
- Liburuak etengabe gomendatzen eta zerrendatzen

# LIBURUAK AUKERATZEKO IRIZPIDEAK

# SORKUNTZA PROZESUAK

# Ekitaldiak irakurle klubean

## DENBORA

- Garaiz prestatu behar dira.
- Idazleen agenda: urtebete lehenago harremanetan
- Dirua arazoa izan daiteke
- Nor ekarri?
  - Idazle gazteak
  - Ez oso ezagunak
  - Itzultzaileak
  - Adituak

## PRESTAKUNTZA

- Etorri aurretik: liburuaren inguruan hitz egin taldean.
  - Galderak/ txandak prestatu
- Gonbidatua taldean:
  - Idazlea ordu batez izan zuekin.
  - Galderak:
    - Eleberria
    - Prozesua
    - Ikuspegiak

# KARTOGRAFIAK









# Literatur kritika kolektiboa

- Testuen interpretazioa ez da aditu batzuen monopolioa, pertsona ezberdinen arteko elkarrizketa baizik.
- Ahotsen aniztasuna sustatzeko: **Tertulia dialogikoak**.
  - Tertulia literario dialogiko tradizionala eta klasikoak.
  - Gure taldean, ezbaian jartzen dugu irizpide hori eta erdigunera ekartzen ditugu irakurketa periferikoak.

# TERTULIA DIALOGIKOAK




GOGOETARAKO
PARAGRAFOAK
EKARRI

IRAKURKETA
POLIFONIKOA

"Egileak irakatsi nahi digu, bera izan baita aktibista lesbiana trans eta bestaldetik, sindikalista eta komunista, zer inportantea den aktibista izatea eta nola indartzen gaitun horrek. Nik uste dut hori dela liburuaren mezua. Aktibismoak ahalduntzen gaitu eta esperantza handiko liburua iruditu zait."

"Nik bilakaera bat ikusten dut (…) Teresarekin (bikote laguna) dagoenean, emakumeen munduan murgiltzen du eta emakumeekiko elkartasuna berak planteatzen dio. Burruka. Konturatzen da beste emakumeekin lana egin behar duela, unibertsitatean lana egiten du, talde lesbianak daude. Jessek oso itxia ikusten du eta ez du burruka hori ikusten bai ordea sindikatu mailan eta bai gizarte mailan ere."

# Sare sozialak



# Sare sozialak

**feminist_agenda_irakurle_kluba** 1362 km euri. Bi emakume idazleen artean idatzitako kilometro euritsuak dira. Horren lekuko gutunetan azaltzen diren euriari etenik gabeko erreferentziak, Irati Iturritzaren: "esadazu zenbat itsaso daramagun barruan; esadazu zergatik ez garen hondoratzen oraindik…". Lorcaren "euriak badu samurtasunezko sekretu lausoa". Baina urak ezezik poesiak aparteko lekua dauka gutun hauetan: Plathen, Rilken, Kalhoren poemek bere bidea egiten dute beste batzuen artean. Szymborskaren, hiru hitzak gogor hausten dute uraren misterioa. Hiru hitz arrotzenak baitira, esan orduko beste esanahi bat irudikatzen dutenak "Etorkizuna berba ahoskatzen dudanerako, lehen silaba iraganari dagokio; Isiltasuna hitza esaterakoan, apurtu egiten dut; Ezereza ebakitzen dudanean, ezelango ez-existentzian tokirik ez duen zerbait sortzen dut." Hausnarketarako poemak, gutun guztietan azaltzen den intertesto aberatsa bezelaxe, dela, literatura, dela musika, dela kantua….




Bi lagunak 2017ko uztailetik 2018ko uztaila bitartean gutunka aritu dira. Haurdunaldi bat iraun du euren arteko distantzia letren bidez jositako ohialak. Denetara dozena bat gutun. Motzak, baina sakonak. Bukaeran, bakoitzaren alter-egoa edo bigarren bizitza baterako emakumea aipatzen dute. Esango nuke edozien eskoletan literatura lantzeko liburu aproposa dela. Aproposa genero epistolarra lantzen duelako. Bi lagunek bata leku batetik eta bestea beste muturretik hariak lotzen ari direlako. Bakoitzaren uneko kezkak, esperientziak eta galderak planteatzen dituztela. Agenda feminista iradokitzen digutelako, emakumeok agendan sartzen ditugun zerrendak eta gaiak agerian jartzen dituztelako: amatasuna, gela propioa, bigarren izatearen kontzeptua… Idaztankera epistolarraz gain, prosak nahiz poesiak kontzientziaren jariotasuna agenda feministan indar handia hartzen duelako.
Eta batez ere hain beharrezkoa den emakumeen bisibilizazio ariketa proposatzen digute. 14 emakumeen biografiak edo zertzeladak ematen dizkigute euren gutunetan zehar. Itzalean egon diren emakume haundiak ezagutzeko parada. Zaila da hitz gutxitan laburtzea bi idazleek proposatzen diguten literatur irakurketa. Maila guztietan aberatsa baita.

# Harremanetarako


Andrea Perales Fdez. de Gamboa

andrea.perales@ehu.eus

Gema Lasarte Leonet

Gema.lasarte@ehu.eus


ATENEO NAVARRO NAFAR ATENEOA

ueu udako euskal unibertsitatea